



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 12a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Miguel Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena (2005-2015), Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Miguel Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena (2005-2015), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Miguel Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena (2005-2015) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Miguel Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena (2005-2015), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Miguel Induráin Fundazioa (5. or.).
 - II.1. Miguel Induráin Fundazioaren ezaugarri nagusiak (5. or.).
 - II.2. Fundazioak 2005etik 2015era jaso dituen diru-laguntza publikoak eta urteko kontuen aipamen laburra (7. or.).
- III. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (10. or.).
- IV. Oharpenak, emandako iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (11. or.).
 - IV.1. Ondorioak eta oharpenak. (11. or.).
 - IV.2. Gomendioak (17. or.).
 - IV.3. Fundazioaren izaera juridikoari buruzko gogoetak (17. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak eskatuta –Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarren 2015eko abenduaren 28ko erabakia– 2016rako jarduketa-programan jaso zen *“Miguel Induráin Fundazioak 2005etik 2015era bitarteko ekitaldietan jasotako funts publikoen kudeaketan”* legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa.

Kontuen Ganberak legezkotasuna betetzearen gaineko fiskalizazioa planifikatu eta egin du, Miguel Induráin Fundazioari (aurrerantzean, Fundazioa) diru-laguntza publikoak ematea, alderdi garrantzitsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin bat etortzeari dagokionez. Zehazki, ea diru-laguntzak emate horretan honako oinarriko alderdi hauek bete diren:

- Argitaratzea, gardentasuna, aldiberekotasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-baztertzea.
- Eraginkortasuna Administrazioak ezarritako helburuak betetzeko orduan.
- Baliabide ekonomikoak esleitu eta erabiltzearen arloko efizientzia.
- Finantzen kudeaketa egokia.

Denbora-esparruari dagokionez, parlamentu-eskariari jarraituz, gura lanak 2005etik 2015era bitarteko ekitaldiak hartu ditu.

Aipatutako fundazioak jasotako diru-laguntza publikoak, funtsean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institututik heldu dira, bai eta, kopuru txikiagoan, Iruñeko Udaletik ere.

Fundazioaren izaera pribatua dela eta, gure jarduketaren ardatza izan da entitate publikoek Fundazioari bideratutako diru-laguntzen eta laguntzen ematea eta haien justifikazioa aztertzea.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, aplikatzekoa den arau-esparrua:

- Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, diru-laguntzei buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babeste jardueren tributu araubidea erregulatzen duena.
- 59/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunen gardentasunerako betebeharrak arautzen dituena.
- Laguntzei buruzko hitzarmenak eta oinarri arautzaileak.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Fundazioaren eta hark 2005etik 2015era jaso dituen funts publikoen ezaugarri nagusiak erakusten ditugu. Hirugarrenean, gure iritzia ematen dugu aztertutako diru-laguntzak ematean legezkotasuna betetzeari buruz. Azkenean, laugarrenean, lortutako ondorio edo oharpenak jasotzen ditugu, iritzian eraginik ez dutenak, bai eta laguntza horien kudeaketa hobetze aldera ematen ditugun gomendioak ere; halaber, Fundazioaren izaera juridikoari buruzko gogoeta batzuk jaso ditugu.

Azterketa-lana 2016ko martxotik maiatzera bitartean egin du auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Gure lanean, kontuan hartu ditugu Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetza Zerbitzuak egindako txosten eta jarduketak.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko egungo zuzendari kudeatzaileari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015era arte kargu horretan aritutakoei ere, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko

19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko eta Iruñeko Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. MIGUEL INDURÁIN FUNDAZIOA

II.1. MIGUEL INDURÁIN FUNDAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Fundazioaren ezaugarri nagusien artetik, honako hauek aipatuko ditugu:

- 1998ko apirilean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen bere parte-hartzerako baimena ematea –Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez (aurrerantzean, NKGI)–, sortzaile gisa, Miguel Induráin Fundazioan. Erabaki berean, Fundazioaren estatutuak onetsi ziren –une hauetan, gainerako sortzaileek onetsi gabe daude–, ohorezko komiteko kideak izendatu ziren –gobernuko lehendakaria eta kirolaren arloko kontseilaria– eta NKGIko zuzendari kudeatzaileari ahamena eman zitzaion patronatuko eta komite exekutiboko kideak izendatzeko.

Aurreko erabakiaren justifikazioa izan zen Nafarroako kirolariek nazioko eta nazioarteko lehia-ketetan lortutako emaitzak hobetzeko beharra. NKGIak xede horretarako dauzkan baliabideak nahikoak ez direnez, egokiagotzat jotzen da fundazio pribatu baten figura erabiltzea, zeinak bermatuko baitu, batetik, finantzabide berriak bilatzea, eta bestetik, autonomia ekonomikoa eduki-zea eta kudeaketa arinagoa izatea.

- 1998ko irailean eratu zen, eta honako hauek izan ziren haren bazkide sortzaileak: Nafarroako Gobernua (Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua), Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Nafarroako Aurrezki Kutxa. Fundazioaren hasierako zuzkidura 270.000 eurokoa (45 milioi pezeta) izan zen, hiru bazkideek zati berdinetan jarria. Komeni da zehaztea ezen, aurreko bazkide sortzaileetatik Nafarroako Gobernuak baizik ez dituela urtero diru-laguntzak ordaindu Fundazioaren xedeak finantzatzeko.

- Izaera pribatuko eta interes sozialeko Fundazioa da. Nortasun juridiko propioa du eta independentea da, eta ez du irabazi asmorik. Helbidea Iruñean du; zehazki, NKGIko Kirolaren Etxean. 1999ko abenduan eman zuen izena Nafarroako Gobernuaren Fundazioen Erregistroan.

- Haren xedeak honela laburbil ditzakegu:

a) Nafarroan errendimendu handiko kirolaren praktika sustatu eta garatzea.

b) Edozein pertsona fisiko eta/edo juridiko, publiko edo/eta pribaturengandik baliabide ekonomikoak lortzea, edozein eratako diru-laguntzak edo laguntzak finantzatzeko, hain zuzen ere fundazioaren xedeak egoki gauzatzeko beharrezkoak direnak.

c) Diru-laguntzen eta laguntzen hartzaile izanen diren Nafarroako kirolari aurreratuen prestakuntzan, kontrolean eta puntuan jartzean parte hartzea.

d) Eskura dauden baliabide ekonomikoak egoki erabiltzen direla zaintzea.

e) Nafarroako errendimendu handiko kirola garatzen lagunduko duten ikerketa eta prestakuntza programak sustatu eta prestatzea.

f) Jendearen artean zabaltzea egiten dituen jarduketa guztiak, haren xedeak hobeki ezagut ditzaten eta haiak bultzatze aldera.

g) Adierazitako helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein jarduera egitea.

Aurreko xedeak bat datoz Nafarroako Gobernuaren helburu eta xedeen zati batekin, hain zuzen ere Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Legean aurreikusitakoekin, eta, zehazkiago, maila jasoko kirol jardueraren sustapena bilatzen duten berariazko programen onespenezekin, Nafarroako kirol entitateen laguntzarekin.

- Ondoren erakusten dugu zein diren Fundazioaren egungo gobernu-organismoak eta haien osaketa:

a) Ohorezko Komitea, Miguel Induráin lehendakari duena, ondorengo kideekin: Nafarroako Gobernuko lehendakaria, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria, Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberako lehendakaria eta Espainiako Komite Olinpikoko (aurrerantzean, COE) lehendakaria.

b) Patronatua, NKGIko zuzendari kudeatzailea lehendakari duena. Lehendakariordea, berriz, Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren ordezkari bat da; NKGIko ordezkaria da idazkaria, eta beste bi kide dauzka: bata NKGIak izendatua eta bestea COEk izendatua.

b) Komite Exekutiboa, NKGIko zuzendari kudeatzailea lehendakari duena. Lehendakariordea, berriz, Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren ordezkari bat da; NKGIko ordezkaria da idazkaria, eta beste kide bat badu NKGIak izendatua.

d) Jarraipen Batzordea, NKGIko lau kidek eta Fundazioaren jardura ekonomiko eta kontabilitatekoa kudeatzen duen enpresako bi kidek osatua.

Bistan denez, Nafarroako Gobernuak gehiengoa du zuzendaritza- eta kudeaketa-organo guztietan, NKGIaren bitartez.

- Fundazioak ez du langile berekirik. Gerentziako lanak kontratatuta dagoen kirol zerbitzuetako enpresa batek egiten ditu.

- Aipatutako xedeak betetzeko, Fundazioa saiatzen da errendimendu handiko Nafarroako kirolarietara "babes integrala" eskaintzen, beren lan-baldintzak hobetzeko, kirol-errendimendua handitzeko eta maila handiko lehiaketetan lortzen dituzten emaitzak optimizatzeko. Horretarako, hainbat programa garatu ditu denboran zehar, eta ahaleginak egin ditu kirolariak laguntza behar duen esparru guztietan sartzeko. Hartara, honako programa hauek kudeatzen ditu:

a) "Nazio esparruko maila handiko kirolarientzako laguntza ekonomikoak". Programa honen bitartez, laguntza ekonomiko batzuk (bekak) ematen zaizkie Nafarroan maila handiena duten kirolari ez-profesionalei, gehiago entrenatu ahal dezaten edo entrenamendu horiek baldintza hobeto egiten dituzten. Hartara, honako jarduketakoak biltzen dira:

1.a Joko Olinpikoetara joateko aukerak dauzkaten kirolarientzako laguntza ekonomikoak.

2.a a) Nazio esparruan maila handia duten kirolarientzako laguntza ekonomikoak.

3.a Kirolari bekadunen teknikarientzako laguntza ekonomikoak.

4.a Nafarroako federazioekin hitzartutako laguntzetarako programa bereziak. Kasu honetan, fundazioak lankidetzan jarduteko modua askotarikoa da, kirolarientzako pizgarri ekonomikoetatik hasi eta materialerako edo azpiegiturarako laguntzara artekoak.

5.a Mailegu-beken programa, zeinaren helburua baita kirol-proiektzio berezia duten eta profesionalak izatera iristeko moduko diziplinetan aritzen diren kirolarietara laguntzea.

b) "Lanerako prestakuntza eta laneratzea" izeneko programa Programa honen helburua bikoitza da: Batetik, kirolari batzuei laguntza eman nahi die beren prestakuntza akademikoa eta maila handiko kirolaren praktika bateragarri egiteko; eta, bestetik, beren prestakuntza geroratu behar izan duten edo beren lan-itxaropenak atzeratu behar izan dituzten kirolarietara ezagutzak, metodoak eta beharrezko tresnak ematea lan-ingurunean baldintza onenetan eta ahal bezain laster birkokatzeke.

c) "Kirolarientzako eta entrenatzaileentzako baliabide osagarriak ematea" izeneko programa. Kirolarietara laguntza integral bat eman nahi zaie, laguntza ekonomiko hutsera mugatu gabe. Hori dela eta, programa hau ezartzen da, zeinaren bidez ahal den guztian ase nahi baitira diruak ez diren beste eskakizun batzuk, kirolari batzuen kirol-praktikaren baldintzak hobetzea bideratzen dutenak; honako hauek, besteak beste: instalazioetarako eta bitarteko materialetarako sarbidea, ordutegiak erraztea eta abar.

d) "Kirol-dopinaren aurkako plan integrala" izeneko programa. Fundazioa, errendimendu handiko kirolariek inongo kontaktu izan duen kontaktua dela eta, behartuta dago dopinaren aurka borroka egitera, prebentzioaren, informazioaren eta hartarako alternatiben ikuspuntutik, zeren eta haren kontrolaz eta errepresioaz beste erakunde batzuk arduratzen baitira.

e) "Talentu gazteak" programa Programa berri honen helburu orokorra izanen da adin goiztiarretan nabarmentzen diren kirolariak detektatu eta haien ibilbidea jarraitzea, kiroleko, hezkuntzako edo gizarte oinarriko beharretan lagunduz. Bestela ere, kontua da haien artean hautatzea etorkizunean kirol-errendimendu handira iristeko behar besteko baldintza morfofuntzionalak, mugimendukoak, pertsonalitatekoak, intelektualak, gizatiarrak edo motibaziokoak

dauzkatena, eta haiei laguntza ematea hori lortzeko bakoitzarentzat berariaz diseinatutako jarduketa antolatu batzuen bitartez.

II.2. FUNDAZIOAK 2005etik 2015era JASO DITUEN DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK ETA URTEKO KONTUEN AIPAMEN LABURRA

2005etik 2015era Fundazioak 2,44 milioi jaso ditu. Horietatik ehuneko 87 Nafarroako Gobernutik eta gainerakoak Iruñeko Udaletik jaso ditu. Hurrengo tauletan zenbateko hori urteen eta entitate emailearen arabera banakatuta emanen dugu:

Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernua - Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzak	Ordaindutako diru-laguntza
2005	180.000
2006	185.300
2007	185.300
2008	285.300
2009	285.300
2010	255.000
2011	285.000
2012	150.000
2013	60.613
2014	100.000
2015	120.000
Urteko diru-laguntzak, honainoko guztira	2.091.813
2005 Dopinaren aurkako programa berezia	25.000
Fundazioaren diru-laguntzak (2005-2015), guztira	2.116.813

Iruñeko Udala

Iruñeko Udala - Induráin Fundazioaren diru-laguntzak	Emandako laguntza
2005	35.205
2006	36.500
2007	38.000
2008	38.000
2009	38.000
2010	38.000
2011	38.000
2012	30.400
2013	30.400
2014	-
2015	-
Fundazioaren diru-laguntzak (2005-2015), guztira	322.505

Aurreko diru-laguntza guztiak izenekin jaso dira bi entitateen aurrekontu orokorretan, eta haien funtsezko xedea da Fundazioak garatutako Nafarroako maila handiko kirolarientzako laguntza-programen finantzaketan laguntzea.

2014tik, Iruñeko Udalak, Fundazioaren jarduera funtsean goi-mailako lehiako kirolera bideratuta dagoela jota, baztertu egin du hari diru-laguntzak ematen jarraitzea.

Aztertutako aldian, Fundazioaren urteko kontuak direla-eta inongo sinadura pribatuk ez du kanpoko auditoria-lanik egin. Horri dagokionez, aipatu beharra daukagu haietan ez direla jaso 10/1996 Foru Legeak betebeharrak horretarako gutxieneko gisa ezartzen dituen zenbateko edo parametroak.

Hurrengo taulan erakusten dugu Fundazioaren gastu eta diru-sarreraren guztizkoa, emaitzen kontuaren arabera, bai eta haren kontabilitate-emaitza ere:

Miguel Induráin Fundazioa	Gastuak	Diru-sarrerak	Ekitaldiko emaitza
2005	527.595	552.611	25.016
2006	476.306	486.418	10.112
2007	615.974	602.698	-13.276
2008	622.912	631.516	8.604
2009	603.359	602.607	-752
2010	605.195	615.664	10.469
2011	591.505	628.463	36.958
2012	488.730	508.139	19.409
2013	581.455	589.317	7.862
2014	539.134	540.073	939
2015 (*)	ez dago eskuragarri	ez dago eskuragarri	ez dago eskuragarri

(*) Txosten hau idazteko garaian, 2015eko kontuak falta ditugu

Diru-sarreretan, aipagarrienak laguntzaileen (administrazio publikoak eta babesleak) ekarpenetatik heldu direnak dira –garaiko diru-sarrera guztien ehuneko 92 baino gehiago egiten dute–, bai eta emandako ikastaroetatik heldutakoak ere –ehuneko zazpi inguru–.

Gastuetan, bereziki nabarmendu beharrekoak dira kirolarientzako eta teknikarientzako beken eta laguntzen multzoa –garaiko guztizko gastuen ehuneko 50 egiten dute– eta hornidurak –ehuneko 40–. Azken horien barruan, erregistratuta dago Fundazioak kirol kudeaketan berezitutako enpresa batekin¹ daukan kudeaketa ekonomiko-kontabilitatekoaren kontratua, zeinak urtean 50.000 euroko batez besteko gastua baitauka.

Ez dago jasota inongo langile-gasturik, ez eta zuzendaritza- eta kudeaketa-organoek inongo kalte-ordain ekonomikorik edo ordainsaririk jaso izana ere Fundazioan egiten duten lanbide-jardueraren truke.

Aztertutako ekitaldietan lortutako emaitza garbi positiboa 105.343 eurokoa da guztira.

2005eko abenduaren 31ko eta 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak hurrengo taulan eman ditugu, laburbilduta:

Aktiboa	2005	2014	Garbia eta pasiboa	2005	2014
Aktibo ez-korrontea, guztira	49.004	0	Funts soziala	270.000	270.000
Zordunak	157.082	398.391	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-292.482	-188.078
Eskudirua	78.792	14.376	Galerak eta irabaziak	25.016	939
Aplikatzeko dauden kontusailak	1.202	0	Ondare garbia, guztira	2.534	82.861
Aktibo korrontea, guztira	237.076	412.767	Pasibo korrontea, guztira	283.546	329.906
Aktiboa, guztira	286.080	412.767	garbia eta pasiboa, guztira	286.080	412.767

Bistan denez, 2005ean aurreko urteetako emaitza negatibo metatuak sozietate-funtsa baino handiagoak ziren, eta ondare garbia 2.534 eurokoa baizik ez zen.

¹ Enpresa horrek, aldi berean, babesletza-kontratu bat dauka Fundazioarekin, eta aztertutako aldian urtean 9.000 euro eman izan dizkio batez beste.

2014an, aurreko magnitudeen egoerak bilakaera positiboa izan du, eta 82.861 euroko ondare garbia ageri da. Alabaina, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboek oraindik ere handiak dira; 188.078 eurokoak, hain zuzen.

Aztertutako aldian, Fundazioak ez du epe luzeko zorrik. Era berean, nabarmendu beharra daukagu ez duela ez ibilgetu ukiezinik, ez ibilgetu materialik ere. Aktiboak 2005ean erakusten duen kopurua izaera finantzarioko inbertsioei dagokie.

III. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA

Fundazioari diru-laguntza publikoak ematen dizkioten administrazio publikoak –Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala– kontratazioaren arloko organo eskudunen bitartez, bermatu behar dute emandako diru-laguntzak eta egoera-orrietan haiei buruz islatzen den informazioa bat datozela araudi indardunarekin.

Halaber, diru-laguntza horien kudeaketa eta erregistroan legeen ez-betetzerik eta iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela bermatzeko beharrezkoa den barne-kontrolaren erantzuleak dira.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat ematea aztertutako diru-laguntzak eman, justifikatu, ordaindu eta erregistratzerakoan legezketasuna betetzeari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizazioarako oinarritzko printzipioen arabera.

Printzipio horiek exijitzen dute fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagun halako moduz non arrazoizko segurtasun bat lortuko dugun diru-laguntzak direla-eta aztertu dugun jardura –Nafarroako Gobernuak 2005etik 2015era bitarteko aldi aurrera eramandakoa– aplikatzeko den araudiaren arabera izateari buruz alderdi esanguratsu guztietan.

Gure azterketaren honako honetan etzan da: egiaztatzea, hautaprobea eginez eta beharrezkotzat jo diren prozedura teknikoak aplikatuz, diru-laguntza publikoak emateari buruzko araudian ezarritako alderdi muntadunak bete direla. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne direla kontabilitate-erregistroaren akats materialei buruzko arriskuaren balorazioa eta aipatutako araudiaren ez-betetze aipagarriak.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia aldatu gabea eratoritzen da.

LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziak, aztertutako diru-laguntzen –administrazio publikoek (Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala) Miguel Induráin Fundazioari 2005etik 2015era emandakoen– eragiketarik bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, diru-laguntza publikoei buruzko arauekin.

BESTE GAI GARRANTZITSU BATZUEI BURUZKO LERROKADA

Aztertutako aldiak, ikusi da bilakaera positibo bat egon dela NKGIak Fundazioari emandako diru-laguntzen gaineko aplikazio efektiboak dela eta.

Halaber, Fundazioaren izaera juridikoari dagokionez, kontuan hartu behar dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 129. artikuluan ezarritakoak², bertan arautzen baita fundazioak administrazio publiko bati atxikitzeko araubidea, zenbait irizpide edo baldintza betetzen direnean.

² Oinarritzko izaera duen artikulua bat da, 2016ko urriaren indarra hartuko duena.

IV. OHARPENAK, EMANDAKO IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanaren ondorioz lortutako ondorio edo oharpenak azaltzen ditugu, bai eta diru-laguntza horien kudeaketa hobetze aldera emandako gomendioak ere. Oharpen horiek ez dute eraginik emandako iritzian.

Atal hau osatu da Induráin Fundazioaren beraren izaera juridikoari buruzko gogoeta batzuekin.

IV.1. ONDORIOAK ETA OHARPENAK.

ALDERDI OROKORRAK ETA AURREKONTUKOAK

Lehena. Aztertutako diru-laguntzek izaera nominatibo eta zuena dute Nafarroako eta Iruñeko Udaleko aurrekontu orokorretan, eta, horrenbestez, haiek ematean lehia baztertu egin da.

Haien funtsezko izaera da Fundazioak garatutako Nafarroako maila handiko kirolarientzako laguntza-programen finantzaketan laguntzea, kirolari horiek lortzen dituzten kirol emaitzei erreparratuta.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuaren kontabilitatean isla duten kasuko kontusailen betetzea honako taula honetan erakusten duguna da:

Nafarroako Gobernuak Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzak	Aurrekontua	Emandako diru-laguntza
2005 ⁽¹⁾	180.000	205.000
2006	185.300	185.300
2007	185.300	185.300
2008	285.300	285.300
2009	285.300	285.300
2010	285.000	255.000
2011	285.000	285.000
2012 ⁽²⁾	280.000	150.000
2013 ^{(2) (3)}	270.400	60.613
2014	100.000	100.000
2015	120.000	120.000
Fundazioaren diru-laguntzak (2005-2015), guztira	2.416.600	2.116.813

⁽¹⁾ 25.000 euroko laguntza berezi bat jaso da dopinaren aurkako borrokaren programarako.

⁽²⁾ Defizita kontrolatzeko Gobernuak blokeatutako kontusailetakoa dira hauek.

⁽³⁾ Hasiera batez, 100.400 euroko gastua baimentzen da, baina ordainketa efektiboa 60.613 eurokoa da.

Ikus daitekeen bezala, 2011ra arte, efektiboki eman den diru-laguntza bat dator aurrekontu-kredituarekin, eta haren zenbatekoa pixkanaka handitzen doa; ekitaldi hori iraganda eta Nafarroako Gobernuak defizitari eusteko aplikatutako aurrekontu-doikuntzen politikarekin bat, diru-laguntza nabarmen jaitsi da, bai aurrekontu-kredituari dagokionez, bai zenbateko efektiboari dagokionez; egoera horretan eragina izan du, halaber, diru-laguntza emateko oinarrien gaineko erregulazio exhaustiboagoak, zeinak aukera eman baitu NKGiko zerbitzu teknikoek eta kontuhartzaitza delegatuak kontrol handiago izateko.

Iruñeko Udalean, emandako diru-laguntza bat dator dagokion aurrekontu-zuzkidurarekin.

Hirugarrena. Fundazioaren diru-sarrerren guztizkoan, aurreko diru-laguntzek honako ehuneko hauek egiten dituzte:

Ekitaldia	Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaren ehunekoa, diru-sarrerren guztizkoaren gainean	Diru-laguntzaren ehunekoa Nafarroako Gobernu+Udala Nafarroako Gobernu+Iruñeko Udala/diru-sarrerren guztizkoa
2005	33	39
2006	38	46
2007	47	54
2008	45	51
2009	47	54
2010	41	48
2011	45	51
2012	30	36
2013	10	15
2014	19	19
2015	ez dago eskuragarri	ez dago eskuragarri

Hau da, 2011ra arte, Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzak zati oso garrantzitsua dira Fundazioaren diru-sarrerren guztizkoan. Urte horretatik aurrera, berriz, garrantzi horrek behera egin du nabarmen.

Iruzkina berberak egin daitezke baldin eta batera hartzen badugu kontuan Gobernuaren eta Iruñeko udalaren diru-laguntzen eragina; hartara, izan ere, diru-sarrera guztien ehuneko 54ra gehieneko baliora iritsiko gara.

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESPEDIENTEAK ETA FUNDAZIOARI EXIJITZEN ZAIZKION EGIAZTAGIRIAK

Laugarrena. Aztertutako espedienteetan ez da txosten teknikorik jaso aurrekontuek bildutako diru-laguntza izendunaren zenbatekoa justifikatzen duenik. Badirudi zehaztapen hori Fundazioak aurreikusitako defizitaren arabera egiten dela.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago ezen NKGIak Fundazioaren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan dauzkan ordezkariak –Institutuak ordezkartzaren gehiengo dauka organo horietan– aldi berean direla Institutu horretan diru-laguntza horiek emateko erantzukizuna dutenak. Horrenbestez, Institutuak informazio ekonomiko-finantzario garrantzitsua zuen Fundazioaren funtzionamenduari buruz eta, horrenbestez, haren finantzaketa-beharrak kalkulatu zitzaizkeen.

Zehaztu beharra dago, bestalde, ezen gutxienez ere 2013tik diru-laguntza emateko txosten juridikoak agerian jartzen duela komenigarria litzatekeela NKGIak Fundazioaren gobernu-organoetan dauzkan ordezkariak izapidetzean abstenitzea. Izan ere, abstentzio hori jaso egiten da eta haien ordez horretarako legez gaitutako pertsonak jarri dira.

Bosgarrena. Oro har, diru-laguntza emateko kasuko espedienteak araudian ezarritako prozeduraren bitartez onesten dira. Diru-laguntzaren emateko den organoaren baimena jasotzen da eta, horrekin batera, txosten teknikoak, zerbitzu juridikoenak eta kontu-hartzailetza delegatuaren fiskalizazioa. Azken horri dagokionez, haren zenbait jarduketak ikusi ditugu, 12. ondorioan iruzkitzen direnak.

Hala eta guztiz ere, ikusi dugu ezen, zenbait kasutan, eta bereziki 2012tik aurrera, diru-laguntzak emateko espedienteak ekitaldiaren amaieratik hurbil dauden datetan izapidetu direla eta, horrenbestez, zailago gertatu dela haiek fiskalizatu eta kontrolatzea. Gainera, horrek arriskuan jar lezake Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa, baldin eta, azkenean, diru-laguntza horiek ematea onetsi ez eta Fundazioak, ordurako, diruz lagundu behar zen jarduera exekutatu badu.

Halaber, nabarmendu beharra daukagu kirolariei/teknikariei laguntzak ematea funtsean kirolari horiek diru-laguntza eman aurreko urteetan lortu dituzten kirol-emaitzetan oinarritzen dela.

Seigarrena. 2011ra arte, diru-laguntza horiek NKGlaren eta Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenen bitartez bideratu dira; ekitaldi horretatik aurrera, berriz, oinarri arautzaileak biltzen dituzten kasuko ebazpenen bidez. Bi tresna horietan, aitortzen da bateragarriak direla diru-laguntza hauek eta Nafarroako Gobernuak berak, beste administrazio batzuek edo nazioko zein nazioarteko bestelako ente publiko nahiz edo pribatu batzuek eman ditzakeen beste batzuk.

Zazpigarrena. Sinatutako lankidetzahitzarmenak direla-eta, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2005etik 2008ra doan aldiari dagozkion hitzarmenek diru-laguntza ordainketa bakarrean ematea aurreikusten zuten. Gero, bi eta are hiru epetan ordaintzea sartu zen.

- Ordainketa bakarreko kasuetan –2005etik 2008ra bitartekoak–, honako dokumentazio hau eskatzen zen:

a) Ordainketa egin aurreko baldintza gisa, Fundazioak NKGlari, funtsean, honako dokumentazio hau ematea:

a.1) Aurreko urteari buruzko kirol-oroitidazkia eta oroitidazki ekonomikoa.

a.2) Aurreko ekitaldiko emaitzen balantzea eta kontua.

a.3) Komite Exekutiboaren eta Patronatuaren aurreko urteko aktak.

a.4) Ekitaldirako kirol-proiektua.

a.5) Fakturen edo gastuen egiaztagirien zerrenda izenduna, beren kontabilitate-idatzoharrekkin. Gutxienez ere emandako diru-laguntzaren kopuru bera jasoko du.

b) Halaber, Fundazioak honako betebeharrak hauek hartu beharko ditu bere gain.

b.1) NKGlak ematen dituen kopuruak erabiltzea haiek ematen direneko xedeetarako eta haiek bere kontabilitatean erregistratzea.

b.2) Diru-laguntza eman eta hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan, honakoak aurkeztea: kirol oroitidazki eta oroitidazki ekonomikoa, balantzea, emaitzen kontua eta diru-laguntza eman deneko ekitaldiaren aktak.

b.3) Emandako diru-laguntzaren publizitatea ematea.

b.4) Erantzukizunpeko aitorten batez egiaztatzea hornitzaileak efizientzia-irizpideei eta merkaturako prezioei jarraituz hautatu direla.

b.5) NKGlak komenigarritzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egitea.

- Bi epetan ordaindu beharreko hitzarmenetan –2009 eta 2010–, honako hau izanen da Fundazioak eman beharreko dokumentazioa.

a) Hitzarmena sinatu aurretik: kirol oroitidazkia eta oroitidazki ekonomikoa, balantzea, emaitzen kontua eta diru-laguntza eman aurreko ekitaldiaren aktak eta diru-laguntza ematen den ekitaldiko kirol proiektua eta proiektu ekonomikoa.

b) Lehenengo ordainketan, diru-laguntzari dagokion kopurua ordainduko da. Fakturen edo gastuen zerrenda izendun baten bidez justifikatuta egon ahalko da, kontabilitate-idatzohar baten bidez, eta Fundazioko organo eskudunek sinaturik egonen da.

c) Ekitaldiko abenduaren 1a baino lehen, eta bigarren eta azken eperako, fakturen eta gastu-egiaztagirien zerrenda izendun bat, beren kontabilitate-idatzoharrekkin. Fundazioko organo eskudunek zigilatuta eta sinatuta egonen dira, eta emandako diru-laguntzaren kopuru bera jasoko dute, gutxienez ere.

d) Gainera, ordainketa bakarreko hitzarmenetarako b) letran aipatzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

- 2011ko hitzarmenean, hiru epetan ordaintzeari buruzko formula ezartzeaz gainera, Fundazioak aurkeztu beharreko honako dokumentazio hau aipatzen da.

a) Gastuei eta diru-sarrerei buruzko egiaztatze-kontua: ekitaldiko proiektuaren emaitzei buruzko kontua; ordaindutako gastuetako fakturen/egiaztagirien zerrenda, jasotako diru-sarrera guztien zerrenda –entitate publikoena zein pribatuena– eta gastuen eta haien ordainketaren jatorrizko fakturak.

b) Kirol oroitidazkia eta ebaluazioari buruzko oroitidazkia, horren barne direla bai jada exekutu diren kirol jarduerak, bai jarduera horiek Nafarroan izan duten eragina eta ebaluazioa ere.

c) Erakundeen presentziari buruzko oroitidazkia.

d) Gainera, ordainketa bakarreko hitzarmenatarako b) puntuan aipatutako betebeharrak hartuko ditu bere gain, berritasun gisa berariaz sartzan diren bi berezitasunekin:

d.1) Diru-sarrera guztien zenbatekoak, haien jatorria edozein dela ere, ezin izanen du gainditu garatutako jardueraren kostua.

d.2) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta edukitzea.

Zortzigarrena. 2012ko ekitalditik aurrera, diru-laguntza izenduna emateko oinarri erregulazionalak batzuk bete beharko dira. Horietan diru-laguntza ordainketa bakarrean egitea jasotzen da. Halaber, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Aipatutako oinarrietan, modu exhaustiboan erregulatzen dira bai Fundazioaren programa zehatza, Nafarroako Gobernuak bere diru-laguntzekin babesten duena –”kirolari/teknikari olinpikoentzako laguntzak, beren emaitzak direla eta–, bai aipatutako Fundazioak kalkulaturako kostua, Fundazioak eman beharreko laguntzen izaera eta laguntza horien balizko hartzaileek bete beharreko baldintzak/irizpideak³, aurreko urtean lortutako kirol emaitzak direla eta.

- Diru-laguntzaren aplikazioari buruzko justifikazio gisa, Fundazioak honako betebeharrak hartu beharko ditu bere gain:

a) Fundazioak diruz lagundutako programa dela-eta ordaindutako gastu guztien eta lortutako diru-sarrera guztien egiaztatzea, honako hauek identifikatuta: hirugarrena, kontzeptua eta ko-brantza/ordainketaren data. Dokumentazio horri programari buruzko kirol oroitidazki bat gehituko zaio, bai eta erakundeen presentziari buruzko oroitidazkia ere.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta edukitzea.

e) NKGLari jakinaraztea Fundazioak zein diru-laguntza edo laguntza jaso dituen Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako programa zehatza laguntzeko.

d) Fundazioak jasotako diru-sarreraren guztizkoak ezin izanen du gainditu finantzaturako programaren kostu osoa.

e) Berariaz jasotzen da diru-laguntza itzultzeko mekanismoa, finantzaturako jarduera hitzartutako baldintzetan egiten ez bada, bai eta diru-laguntzaren aplikazio desegoki batetik erator daitekeen erantzukizun eta zehapenen araubidea ere.

f) Araudi indardunean ezarritako gardentasun-betebeharrak.

JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN APLIKAZIO EFEKTIBOARI BURUZKO BARNE KONTROLA

Bederatzigarrena. NKGLak diru-laguntza horien aplikazioa dela-eta egiten duen kontrolari dagokionez, berriz diogu ezen, aipatu beharreko lehenengo alderdia dela NKGLko ordezkariak parte-hartzearen gehiengo dutela Fundazioaren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan.

Hamargarrena. Diru-laguntzak lankidetzaren hitzarmenetan erregulatuta zeuden garaia dela eta –2005etik 2011ra bitarteko ekitaldiak–, argitu dezakegu NKGLak Fundazioaren diru-laguntzen aplikazio efektiboari buruz egindako kontrola mugatua izan dela. Horretan, honako alderdiek eragiten dute bereziki:

³ 2013ko oinarrietatik hasita.

- Diru-laguntzaren xedea gutxi xehakatuta edo zehaztuta dago. Horrenbestez, azterketa oinarritu da, funtsean, Fundazioak garatutako jardueren multzoan.
- Eskatutako dokumentazioa oso zabala da; hori dela eta, azterketa ardua handiz egin beharra dago, eta hori ezin da beti egin, eta praktikan emaitza eskasak dakartza.
- 2011n izan ezik, orduan hitzarmenean baldintza gisa exijitu baitziren, gainerako hitzarmenetan honakoen moduko betekizunak ez dira berariaz jaso: zerga-betebeharrak betetzea eta jasotako diru-sarrerek garatutako jardueraren guztizko kostua ez gainditzea.

Hamaikagarrena. Oinarri arautzaileetan sartu ondoren, kontrol hori exhaustiboago eta zorrozago bihurtzen da, eta bai emandako justifikazio zehatza, bai haren aplikazio efektiboa aztertzen dira. Aldaketa horrek, funtsean, bai oinarri horien edukian eta betekizunetan, bai diruz lagundutako jardueraren zehaztapenean eta kontu-hartzailletza delegatuak aurrera eramandako fiskalizazio-ekintzetan ere eragiten du.

Hamabigarrena. NKGlaren kontu-hartzailletza delegatuaren jarduketa. Aztertutako aldian, zerbitzu honek eragozpen-oharrak egin izan ditu Fundazioari diru-laguntzak ematea dela eta, honako ekitaldi hauei dagokienez:

- Dopinaren aurkako borrokarako 2005eko plan bereziko diru-laguntza.
- Urteko diru-laguntza, 2012.
- Urteko diru-laguntza, 2013.
- Urteko diru-laguntza, 2014.
- Urteko diru-laguntza, 2015.

Eragozpen-ohar horietatik ondoko alderdiak nabarmentzen ditugu, funtsean:

- 2013koa izan ezin, diru-laguntza bertan behera uztekoa izan baitzen, gainerako eragozpen-oharrak ez dira diru-laguntza bertan behera uztekoak. 2013koak, desadostasunari konponbiderik ez emateaz gainera, berarekin ekarri zuen espedientea erretiratzea eta beste bat izapidetu behar izatea.
- Fiskalizatu beharreko espedientearen izapidetzeari dagokionez –ekitaldi jakin batzuetan, fase guztiak hartzen ditu: gastu-baimena, oinarri arautzaileen erregulazioa, diru-laguntza eman eta hura ordaintzea edo ondorenetara pasatzea–, esan beharra dago batzuetan izapideak emakidaren urteko abenduaren amaieran egin izan direla. Jokamolde horrek "kaltetu eta mugatu egiten du egin beharreko kontrola eta fiskalizazioa".

Hala eta guztiz ere, gure aldetik zehaztu beharra dago ezen Nafarroako Gobernuak aurrekontu-defizita kontrolatzeko aplikatzen duen kontusailen blokeatze-politikak atzerapena ekarri zuela diru-laguntzen izapidetzean.

- Aurreko izapidetzea egiten da behin Fundazioak diru-laguntzaren xede diren gastuak eginak dituztenean.
- Ikusten da behar baino informazio gutxiago dagoela Fundazioak lortutako diru-sarrerei buruz.
- Diru-laguntzaren bidez finantzatu beharreko defizitaren zenbatekoa ez zen beti guztiz zehaztuta ageri.

KONTUEN GANBERAK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESPEDIENTEEN GAINEAN EGINDAKO AZTERKETA

Hamahirugarrena. Kontuen Ganberak egindako azterketatik, ondorioztatzen da Fundazioak bere jardura justifikatzeko aurkeztutako gastu eta diru-sarrera guztiek behar den dokumentazio-bermea dutela, eta banku-laburpenetan islatuta daudela. Halaber, ikusi dugu Fundazioan bilakera positibo bat egon dela diru-laguntzen justifikazioa dela eta.

Hala eta guztiz ere, honako gorabehera hauek ere ikusi ditugu, batez ere diru-laguntza hitzarmen bidez erregulatzen zen garaian (2011ra arte):

- Ez dago beti barne koherentziarik, batetik, NKGIak aurkeztutako amaierako likidazioen eta gastu eta diru-sarreretako balantzeen eta, bestetik, urteko kontuen finantzetako egoera-orrien artean.

- Fundazioak ez zuen beti informatzen babesleengandik heldutako diru-sarrerei buruz.

- Ekitaldi batzuetan, ezin izan dira egiaztatu kirolariei beren emaitzengatik emandako bekak kontabilitate-informazioarekin, kontabilitate-idazpena orokorrean egiten baita.

- Ekitaldi batzuetan, Fundazioak ez du eskatu zaion informazio osoa eman (euskarri informatikoak, jatorrizko fakturak, erantzukizunpeko aitortpena...).

Hamalaugarrena. Iruñeko Udalari aurkeztutako egiaztagiriei dagokienez, honako hau esan beharra daukagu:

- Diru-laguntzaren eskabidean, funtsean, honako hauek gehitzen dira: Fundazioaren aurrekontua, Iruñean bizi diren kirolarientzat aurreikusitako gastu-aurrekontua (bekak) eta zerga-betebeharrak ordainduta edukitzeari buruzko ziurtagiriak.

- Emandako laguntzen zerrenda.

- Udalaren diru-laguntzaren bidez finantzatu beharreko gastu eta diru-sarreraren zerrenda.

Oro har, gastu horiek bat datoz Nafarroako Gobernuari aurkeztutakoekin, eta Udalaren diru-laguntza hau Gobernuak finantzatutako programen defizita finkatzeko jasotzen da.

Hamabosgarrena. Aztertutako aldian, Fundazioak 105.343 euroko emaitza positibo garbiak lortu ditu. Zenbateko horrek adierazten du Fundazioak, aztertutako ekitaldi guztietan, behar adinako finantzaketa lortu duela.

Hamaseigarrena. Fundazioak bere hornitzaileentzat hautatu duen justifikazioa, efizientzia-irizpideetan oinarritua eta merkatu-prezioen arabera, erantzukizunpeko aitortpen huts bat da. Aztertutako dokumentazioan ez dago jasota Fundazioak jarduketarik egin denik Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeko 28.3 artikuluan jasotako legeko betebeharrak hori egiaztatzeko.

Halaber, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Lege indardunak bere aplikazio osorako esparru subjektiboan fundazioak sartzen ditu (publikoak zein pribatuak), hurrengo bi baldintzak betetzen direnean –eta hori gertatzen da oraingoan–:

- Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

- Nafarroako administrazio publikoek, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueraren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez.

Aplikazio hori bereziki aztertu beharko da Fundazioak izenpetua duen kudeaketa ekonomiko eta kontabilitatekoaren kontratuan.

Hamazazpigarrena. Babesleengandik espeziean jasotako diru-sarrera. Oro har, sinatutako babesletza-kontratuak ez daude lotuta Fundazioak garatu beharreko inongo jarduera zehatzekin. Halaber, ikusten dugu ezen, espeziean emandako babesletzaren kasuan, ez dela beti guztiz mugatzen egin beharreko jardueraren edo eman beharreko zerbitzuaren izaera, eta ez dirudi fakturatan ematen den informazioak argibide zehatzik ematen duenik zerbitzu horiei buruz eta haien merkatu-prezioen arabera daukaten balorazioari buruz.

Hemezortzigarrena. Fundazioak bete egin ditu 59/2013 Foru Dekretuko 4. artikulua ezartzen dituen gardentasun-betebeharrak, zeren eta jasotako diru-laguntzak 20.000 euroko atalasea gainditzen baitu. Betebeharrak horiek erreferentzia egiten diote, funtsean, diru-laguntza ematen duen organoarekin ondokoak komunikatzeari: gobernu organoen osaera, kargudunak eta haien ordainsariak eta azkeneko urteko kontuak. Informazio hori Nafarroako Gobernuaren web-orrian argitaratu da.

Azkenik, adierazi beharra daukagu ezen, Ganbera honek diru-laguntzei buruzko aurreko txostenetan aipatu izan duen bezala, 11/2005 Foru Legeko 5. bis artikulua xedatzen duenaz bestera –artikulu hori 2014ko apirilean⁴ sartu zen, lege horri egindako aldaketa batean–, Nafarroako Gobernuak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategikorik onetsi, departamentuen eta jarduketa-ildoen arabera xehakatu eta hiru urterako indarrarekin.

IV.2. GOMENDIOAK

Aurreko ohar horiek aintzat hartuta, hona Kontuen Ganbera honek aholkatzen duena:

- *Fundazioaren kudeaketan eta zuzendaritzaren osaera aztertzea, Nafarroako Gobernuaren-NKGlaren ordezkari dagokienez, fundazioari diru-laguntzak emateko prozesuan ordezkari horiek abstenitzeko duten legezko betebeharrari konponbidea emateko.*

- *NKGlaren eta Fundazioaren arteko harremanak, haien eginkizunak eta finantzaketa eta bien artean garatu beharreko jarduerak egoki erregulatzea, horren barne direla Fundazioak kudeatzen dituen ikastaroak. Ildo horretatik, komenigarritzat jotzen dugu Fundazioak epe ertaineko plan estrategiko bat egin eta administrazio publikoari aurkez diezaion, eta bertan garatu beharreko ekintza guztiak eta finantzaketarako behar berekiak eta kanpokoak jaso ditzan.*

- *Diru-laguntzak emateko egungo prozedura aztertzea, honako oinarrizko alderdi hauei dagokienez:*

- a) *Ahal den guztian zehaztea diru-laguntzaren xede zehatza, gastu hautagarrien izaera eta finantzatu beharreko defizitaren justifikazioa eta zehaztapena, dokumentazio-eskaera ahal den guztian soilduz.*

- b) *Berariaz bermatzea ez dadila diruz lagundutako jardueraren gehiegizko finantzaketarik, Fundazioaren finantzabide guztiak kontuan hartuta.*

- *Espezieko babesletza kontratuetan, argiro zedarritu beharra dago egin beharreko jardueraren edo eman beharreko zerbitzuen izaera, eta haien balioespenak bat etorri beharko du merkatu-prezioekin. Araudi fiskal indardunak berak alderdi horiexek exijitzen ditu.*

- *Fundazioak Nafarroako Gobernuarengandik jasotako diru-laguntza dela-eta daukan mendetasun finantzarioari dagokionez, eta kontuan izanda haren xedeak interes publikokoak direla, azter liteke NKGlaren eta Fundazioaren artean urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sinatzea, haren bideragarritasun eta egonkortasun finantzarioa segurtatze aldera.*

- *Baloratzea Fundazioaren urteko kontuen kanpoko auditoria exijitzeko aukera.*

Nafarroako Gobernuarentzat:

- *Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei buruzko plan estrategikoa onestea, Gobernuak diru-laguntzetarako duen politika modu orokorrean egituratzeko garrantzizko tresna moduan, argi definituz zein diren departamentu bakoitzak bilatzen dituen helburuak eta jarduketa-ildoak, eta berraztertuz emandako diru-laguntza askoren egokitasuna eta arrazoizkotasuna, bai eta departamentuen arteko koherentzia ere. Hori guztia epe luzeko perspektiba batetik, eta urteko ebaluazio-tresnak sartuz.*

IV.3. FUNDAZIOAREN IZAERA JURIDIKOARI BURUZKO GOGOETAK

Miguel Induráin Fundazioa 1998an eratu zen –sortzaileen artean, Nafarroako Gobernu dago–, Foru Berriko 44. legean xedatuaren babesean eta Nafarroako Foru Komunitatean errendimendu handiko kirolaren garapena sustatzeko.

⁴ Aldaketa, zehazki, Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzen duen apirilaren 5/2014 Foru Legearen bidez egin zen.

Estatutuetan finkatu bezala, Fundazioak izaera pribatua eta interes soziala dauzka, eta nortasun juridiko bereki eta independentea dauka. Fundazio pribatuaren figuraren hautuak –NKGlak xede horretarako funtsik ez duela abiapuntutzat hartuta– honako justifikazio hau dauka: batetik, finantzabide berriak bilatzea –besteak beste babesletzarako pizgarri fiskalak– eta, bestetik, kudeaketan autonomia ekonomiko eta arintasun handiagoak lortzea.

Estatutu horietan beraietan, jasota dago Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, NKG-laren birtartezkoak, gehiengoa izanen direla Fundazioaren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan.

Ganberak egindako lanaren ariora sortzen den galdera da ea Induráin Fundazioa izaera publikokotzat ala izaera pribatukotzat jo beharra dagoen.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 125. artikulua araberan, honako hauek dira **fundazio publikoak**: “...Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoak beren esku dituzten helburuak egiteko **sortzen dituztenak** dira, Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioarekin bat”.

Bestalde, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legeak, 2.g) artikuluan, xedatzen du ezen, foru legearen ondorioetarako, honako hauek osatzen dutela foru sektore publikoa:

“.. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak. Ondorio horietarako, halako bihur daitezke, 15/2004 Foru Legeko 125. artikuluan zehaztuz gain, aurreko arauan ezarritako baldintza ez betetzeagatik, **sorreran pribatuak izanik, sortu eta gero partaidetza-baldintza horiek bereganatzen dituztenak**, eta horrekin batera beren gobernu organoetan administrazioaren ordezkariak gehiengoa osatzeko baldintza betetzen dutenak”.

Horrenbestez, sektore publikoko fundazioaren izaera aitortzeko, exijitu izan da botere publikoak fundazioaren kontrol politikoa eta, gainera, kontrol finantzarioa edukitzea. Exijentzia hori, erredundantzia bat denez gero, gehiegizkoa da alde guztietatik, zeren eta Administrazio Publikoak fundazioan daukan eragin menderatzailea egiaztatuta gelditzen baita bi kontrol-modu horietako edozeinengatik. Horrek, izan ere, nahikoa izan behar du fundazioa sektore publiko horretan sartuta egon dadin.

Ildo horretatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 129. artikulua fundazio publikoaren definizioa ezarri beharrean, haren atxikipen-araubidea ezartzen du, eta agintzen du fundazio bakoitzaren estatutuak izan daitezela fundazio hori zein administrazio publikori atxikitzen zaion ezartzen dutenak. Garrantzitsuena da honako irizpide hauek ezartzen direla, aplikatzerako lehenetsun araberan eta aurrekontu-ekitaldiaren lehenengo eguneko egoerari erreferentzia eginez. Irizpide horiei jarraituz, sektore publikoko fundazio bat atxikiko zaio, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eta aldi horrek irauten duen guztian, honako baldintza hauek betetzen dituen Administrazio Publikoari:

- a) Patronatuko kideen gehiengoa izatea.
- b) Organo exekutiboetako kide gehienak izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak izatea.
- c) Zuzendaritzako kide gehienak izendatzeko eta kargutik kentzeko ahalmenak izatea.
- c) Patronatuko kide gehienak izendatzeko eta kargutik kentzeko ahalmena izatea.
- e) Fundazioak garatzen duen jardueraren ehuneko berrogeita hamar edo gehiago finantzatzea, kontuan hartuta bai ondare-funtserako egiten duen ekarpena, bai urte bakoitzean emandako finantzaketa.
- f) Ondare-funtsean partaidetzaren portzentaje handiena izatea”.

Garrantzitsua da arau horrek oinarritzko izaera duela, lege horren azken xedapenetako 14.aren indarrez, eta 2016ko urrian hartuko duela indarra, azken xedapenetako 18.ak ezartzen duen bezala.

Aurreko arauari erreparatuta, Induráin Fundazioak lehenengo lau baldintzak betetzen ditu; horrenbestez, nahitaez Nafarroako Gobernuari atxiki beharko zaio.

Gainera, kontuan hartu beharra dago fundazioak –edozein eratakoak, baldintza batzuk betetzen dituzten bitartean, baldintza horietako bat izaki kudeaketaren gaineko kontrola– ere hartzen dituen foru araudi sektorial askotarikoa, arloaren arabera aplikatzekoa den esparruan: kontratazio administratiboa, langileak, diru-laguntzak eta gardentasuna.

Kontabilitatearen ikuspuntutik, kontabilitate-araudi indardunak finkapenaren perimetroaren barruan sartzen ditu kontrol edo eragin aipagarria duten entitateak, eta erreparatzen dio akzioetan edo patronatuan partaidetzan gehiengoa izateari ez ezik, entitatearen kudeaketan edo administrazio publiko baten helburuekin lotutako zerbitzu bat ematera bideratutako jardueren finantzaketan eragin erabakigarria izateari ere.

Bestalde, "Administrazio Publikoa"ren sektorea definitzeko garaian, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eraginetarako, SEC'2010-ek biltzen duen araudi indardunak kontrol publikoaren irizpidea indartu du, hain zuzen ere kontuan hartu behar dena jakiteko ea entitate bat administrazio publikoek kontrolatzen duten. Hartara, beste gogoeta batzuen artean, nabarmetzen du kudeaketa-organo nagusiak izendatzearen edo atzera botatzearen gaineko edo aztertutako entitatearen politika orokorra zehaztearen gaineko kontrol publikoa.

Ondorioz, amaierako laburpen gisa, honako hau esango dugu:

- Ikuspuntu juridikotik zalantzazkoa da Miguel Induráin Fundazioak entitate pribatuaren izaerari eutsi ahal izatea, zeren eta, besteak beste, Nafarroako Gobernuak sortu baitzuen, haren jardueren finantzaketa neurri handi batean diru-laguntza publikoen mende baitago eta haren kudeaketa- eta zuzendaritza-organoen kontrol efektiboa Gobernuaren beraren ordezkarietara baitagokie.

- Bere garaian entitate pribatu gisa eratzeko erabili zen justifikazioa –kudeaketaren arintasuna– Fundazioaren jardueran eragiten duten esparru desberdinetako legezko betekizunek oso ñabartuta eta mugatuta dago gaur egun.

- Fundazioaren kudeaketa- eta zuzendaritza-organoen egungo osaketak –NKGIko ordezkarietara hartzen dituzte postu gehienak– Fundazioari emandako diru-laguntzen gainean Institutuak egin behar duen kontrol efektiboa baldintzatu dezake.

Horrenbestez, Kontuen Ganbera honen iritziz, Nafarroako Gobernuak berraztertu egin behar luke Miguel Induráin Fundazioaren entitate pribatuaren izaera. Horretarako, ondoko hau gomendatzen dugu:

- *Fundazio hori egituratzea Foru Komunitateko Administrazioari atxikitako izaera publikoko entitate baten gisara. Entitateak antolamendu juridiko pribatuaren arauak beteko lituzke, ezertan kendu gabe aplikatzekoa den araudi administratiboan kontratazioa, aurrekontuak, kontabilitatea eta kontrol finantzarioa direla-eta ezarritako berezitasunak. Agerikoa den bezala, aldaketa horrek estatutuak berrikusi eta egokitzea ekarriko du.*

- *Fundazio publikoaren kasu horretan, azter liteke aukerarik ba ote dagoen Gobernuak, kasu bada, Fundazioaren urteko defizita finantza dezan, horretarako konturako entregari eta amaierako likidazioaren formula erabiliz.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 2an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

